

EMAKUMEAREN NAZIOARTEKO EGUNAREKIN bat eginez, Jose Mariak emakumeei buruz, horien prestakuntzari eta laneratzeari buruz, eta azken batean, emakumeen duintasunari buruz egindako gogoetetako batzuk ekarriko ditugu. Errepara diezaiegun bere gogoetei, lehenengo kooperatiba martxan jartzeko apustua egin aurretik hasitako ibilbidearen baitan.

**Gizonak eta emakumeak, naturak bizimodu intimo eta komunera deituak, kideetasuna behar dute prestakuntzan, lotura espiritualek erlazio naturalak indar ditzaten.**

"IDEARIO PRAKTIKOA" 1953/54, GIZON KOOPERATIBOA, IV. kapitulua, 3.2. atala.

### BESTE GOGOETA BATZUK

Gure erakunde kooperatiboak abangoardiako jarrera dauka maila guztietan, eta nahiko arraroa da gure Estatutuek emakume ezkonduen eskubideak mugatzea, oraintxe gainditzeko zorian dagoen gomuta bat bilduz.

**COOPERACION** aldizkaria, 26. zk., 1962ko urria

Nola gizonak, hala emakumeak, ahal duten guztia eman behar diote gizarteari, eta, trukean, euren talentu zein ahaleginarekiko proportzionala dena jaso.

**COOPERACION** aldizkaria, 26. zk., 1962ko urria

Ezkontzeak ez du inolako eraginik emakumearen gaitasunean, eta gizartearentzat, zalantzarik gabe, askoz ere baliagarriagoa da emakume argi bat, intereseko zerbitzua eman dezakeena, alde batera ez uztea, nahiz eta hala izateko, etxeko zeregin eta helburuetarako laguntzaile bat bilatu behar izan.

**COOPERACION** aldizkaria, 26. zk., 1962ko urria

Lanpostu jakin baten balioa haztatzean, pertsona aintzat hartzen ez badugu eta titularraren iruditik bereizten badugu, nola sar dezakegu jokoan sexua? Zintzoki, ezin da haztaperen irizpide bikoitza eduki, pertsonak duen gauzarik finenari ez ikusiarena eginda: buruari, alegia. Beti aitzakiatzat hartuta gizona hobeto egokitzen dela lan jakin batzuetara.

**TU Trabajo y Union**, 56. zk., 1965eko urria

Gure buru gabeziaren biktima gara, eta ez dugu aintzat hartzen emakumeak askotariko eragikera prozesuetara egokitzeko daukan gaitasuna. Barne-barnean, pozik egon ohi gara gure emakumeak haurren parekoak direla pentsatuz, lanarekiko eta gizonarekin alderatuta ahultasun kronikoaren prismatik begiratzen diegula. Baliteke guk geuk gaixotasun moduko nagusitasun sentimendua edukitzea.

**TU Trabajo y Union**, 56. zk., 1965eko urria

Eta, azkenean, emakumea eta gizona berdintsu! Duela ez mende asko atzera eginez gero, biraoa lirudike, eta profeta iragarlea heriotza zigorrera kondenatutako erruduna; alabaina, zientziaren konkista handiak baliagarriak izan dira barkatu gabeko izakia askatzeko: emakumea.

**TU Trabajo y Union**, 56. zk., 1965eko urria

Egiatzko giza balioen jolasean aurrerakoia izan nahi duen KOMUNITATE batean, oso unibertzala den arreta bat inposatzen da, eta emakumeari eta hark ezarri nahi lukeen bizimodu eta genero berrirako daukan ahalmen eta heldutasunari begiratzen die.

1968ko aipua, GIZON KOOPERATIBOAn jasoa, IV. kapitulua, 3.6. atala.